

**2008ko EKAINAREN 5an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko ekainaren 5an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:  
- 2008ko maiatzaren 8an ospatutako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak igorritako idatzia.**
- 4. Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak emandako 2008ko apirilaren 3ko ebazpenaren baitan, edateko ura banatzeko sareetara bideratutako diru-laguntzaren eskaeraren onespena, hala bada.**
- 5. Zinegotzien aseguroen onespena, hala bada**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2008 urteko maiatzaren 8ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

11/2008 Alkateza Ebazpena, maiatzaren 20koa, 2009 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala abuztuak 3 finkatzea onestea ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **EUSKO JAURLARITZAKO HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIAK IGORRITAKO IDATZIA**

Ikusirik 2008ko maiatzaren 20ko datarekin Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzatik jaso den idatzia, non azaltzen den ELEBIDE, Hizkuntza Eskubideak bermatzeko zerbitzuan kexa bat jaso dela, Larraulgo Udalak herritarrei bidaltzen dizkien mezu, komunikazio eta gainerako adierazpenak euskara hutsean bidaltzen dituela, herritar hauek ele bitan behintzat bidaltzeko eginiko eskaerari uko egin diolarik.

2008ko maiatzaren 8an egindako Udalbatzarrean bi herritarrek eginiko eskaerari, hau da, eurei igorri behar zaizkien idatziak, ofizialak edo ez ofizialak gaztelaniaz edo ele bitan izateko eskaerari, Udalbatzarrak bidalitako erabakia ondorengoia izan zen:

*“Lehena: Larraulgo Udalak egingo dituen idatziak ( ofizialak edo ez ofizialak) euskaraz izatea. Edozein herritarrek Udalak euskaraz eginiko idatziak ulertzen ez baditu, dituen dudak Udaletxeko bulegoetan argituko zaizkie.*

*Bigarrena: Herritarrek Udalari gaztelaniaz eginiko eskaerak, Udalak, gaztelaniaz erantzungo dizkie.*

*Hirugarrena: Interesdunei jakinaraztea, Larraulgo Udalak azken urteetan euskara bultzatzeko ahalegin handiak egiten ari dela, adb. Euskara ikasteko diru-laguntzak emanaz.*

*Laugarrena: Erabaki honen berri interesdunei ematea.”*

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak igorritako idatziari, Udaltzarak 2008ko maiatzaren 8an egindako bilkuran hartutako erabakia berrestea. Ondorengoa diolarik:

*“Lehen: Larraulgo Udalak egingo dituen idatziak ( ofizialak edo ez ofizialak) euskaraz izatea. Edozein herritarrek Udalak euskaraz eginiko idatziak ulertzen ez baditu, dituen dudak Udaletxeko bulegoetan argituko zaizkie.*

*Bigarrena: Herritarrek Udalari gaztelaniaz eginiko eskaerak, Udalak, gaztelaniaz erantzungo dizkie.*

*Hirugarrena: Interesdunei jakinaraztea, Larraulgo Udalak azken urteetan euskara bultzatzeko ahalegin handiak egiten ari dela, adb. Euskara ikasteko diru-laguntzak emanaz.*

*Laugarrena: Erabaki honen berri interesdunei ematea.”*

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariari ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

**URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIAK EMANDAKO 2008ko APIRILAREN 3ko EBAZPENAREN BAITAN, EDATEKO URA BANATZEKO SAREETARA BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA.**

Ikusirik Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak emaniko ebazpena, 2008ko apirilaren 3koa, non honen bidez arautzen dira edateko ura banatzeko sareetara bideratutako diru-laguntzak: kudeaketa planak egiteko eta hobekuntza-ekintzak burutzeko.

Ikusirik aipaturiko ebazpenean aurkeztu beharreko dokumentazioan Erakundearen organo eskudunak diru-laguntza eskatzeko erabakiaren ziurtagiria eskatzen den.

Ikusirik Larraulgo Udaletxeak Edateko ura banatzeko sareak hobetzeko ekintzak burutu nahi dituela. Ekintza hauetarako diru-laguntzak daudelarik. Ondoren zehazten diren ur sareak hobetu nahi dituelarik:

- Kaskoa-Antzola txiki
- Larrañaga-Beobide
- Agerreberri-Plaza
- Murgil-Agerreberri

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2008ko apirilaren 3ko ebazpenari jarraituz, Larraulgo Udaletxeak edateko ura banatzeko sareak hobetzeko ekintzak burutzeko diru-laguntza eskaera onestea. Ondorengoak izango direlarik:

- Kaskoa-Antzola txiki
- Larrañaga-Beobide
- Agerreberri-Plaza
- Murgil-Agerreberri

#### **BOSTGARREN PUNTUA** **ZINEGOTZIEN ASEGURUEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Zinegotzien bizi aseguroa berritzeko garaia iritsi dela.

Ikusirik hiru aseguru etxeei eskatu zaiela Larraulgo zinegotzien bizi aseguroa egiteko aurrekontuak, aseguru etxeak ondorengoak izanik:

- LAGUN ARO ASEGURUA
- VITALICIO ASEGURUA
- MAFRE ASEGURUA

Aipaturiko hiru aurrekontuak azterturik, ikusten da MAFRE Etxeak aurkezturikoa egokiena dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo zinegotzi eta Alkatearen bizi aseguroa MAFRE VIDA Aseguru etxeari esleitzea, bere zenbatekoa 1.536,95 euro direlarik, eta ondoren zehazten diren arrisku-estaldurak dituelarik:

-Heriotza: 150.000,00.-euro

-Ezintasuna: 150.000.-euro

BIGARRENA: Erabaki honen berri MAFRE VIDA Aseguru etxeari ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

|                              |        |
|------------------------------|--------|
| IBERDROLA                    | 234,96 |
| KIROLZER                     | 128,80 |
| MANPEL                       | 163,83 |
| BERRI LANTEGIA, S.L.         | 83,82  |
| ARGITU ASESORES              | 68,67  |
| KOPIDIN, S.L.                | 59,36  |
| KOLDO JAUREGI SARASOLA       | 266,22 |
| KEY-LAN                      | 74,33  |
| KEY-LAN                      | 87,05  |
| BABESA SUZAI, S.A.           | 997,60 |
| UROLA                        | 69,30  |
| UROLA                        | 50,84  |
| TELEFONICA                   | 92,58  |
| TELEFONICA                   | 29,74  |
| TELEFONICA                   | 16,21  |
| TELEFONICA                   | 21,05  |
| EUSKALTEL                    | 125,02 |
| IZFE                         | 374,91 |
| IZFE                         | 374,91 |
| BERRI LANTEGIA, S.L.         | 140,48 |
| E. E. BRION                  | 720,43 |
| PELLO ERROTA GURASO ELKARTEA | 413,54 |

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.593,65** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

**7.1.LARRUALGO L. ETXEAREN ATZEKALDEAN EUSTORMA EGITEKO BAIMENA ESKAERA. C. P. A..**

Ikusirik C. P. A. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo L. etxearen atzekaldean eustorma egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2008ko ekainaren 4an Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. arkitektuak eginiko txostenean dioena:

*“ L. B etxea, Larraulgo lur-hiritargarran kokatua dago.*

*Eskarian, hormigoiezko blokez egindako eustorma baten barruan lorategi bat egin nahi dela esaten da. Lorategi hau, berdez margotzeko asmoa dute.*

*Bertara joanda, ondoko partzelak duen eustorma egurrezkoa dela ikusten da.*

*Larraulgo araudiak honela dio:*

**Articulo 38.- Cierres de parcela**

*Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.*

*Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.*

*Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.*

**Articulo 50.-**

.....

*En los movimientos de tierras, los taludes tenderán a ser lo suficientemente tendidos para evitar la construcción de muros.*

*Los taludes y rellenos que se hayan de ejecutar, se terminarán con siembra de hierba a fin de igualarlos con los terrenos circundantes.*

*En caso de no poder evitar la construcción de muros, los mismos se construirán con mampostería de piedra. En ningún caso se permitirá dejar vistos los muros de hormigón. Los muros de gaviones de piedra se cubrirán con plantas enredaderas.*

*Ondoko horma egiteko erabili den egurrezko materiala eta altura ontzat ematen denez eta berdintasun bat gordetzeko asmoz, orain egin behar den eustormak ondokoaren altura berdina izango du eta antzeko kolore batez margotuko da, ondoren landare igokariez estaliz.*

*Beraz, jardinerak baldintza hauek betetzen baditu, egokia izango da udal baimena ematea.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: C. P. A. andreak eginiko eskaera, hau da, L. etxearen atzekaldean eustorma egiteko eskaera onestea, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. Arkitektuak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri intesdunari ematea.

#### **7.2.G. ETXERA DOAN UR HODIAREN LAGAPENA.**

Ikusirik, G. etxera doan ur hodiaren jabe J. K. J. S. jauna dela.

Ikusirik, G. etxera doan ur hodiak azken aldian hainbat matxura izan dituela, J. K. J. S. jaunari, Larraulgo Udalak eskatu ziolarik, hodiaren jabetza Udalari lagatzea, gastuetaz kargu Larraulgo Udala egingo delarik.

Ikusirik J. K. J. S. jauna, G. etxera doan ur hodia Larraulgo Udalari lagatzeko borondatea azaltzen duela, guzti hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu delarik (akta honi atxikitzen zaiona).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J. K. J. S. jaunak G. etxera doan ur hodia Larraulgo Udalari lagatzeko eskaera onestea.

BIGARRENA: G. etxera doan ur hodiaren jabetza Larraulgo Udalak hartzea.

HIRUGARRENA: G. etxera doan ur hodiaren jabetza lagatzeko prestatu den hitzarmena onestea ( akta honi atxikitzen zaiona)

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola jauna, G. etxera doan ur hodiaren lagapena arautuko duen hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

### **7.3.KZ GUNEKO INSTALAZIOA BERREGITEKO AURREKONTUAREN ONESPENA**

Ikusirik KZ gunea Kultur etxetik Udaletxera ekarri behar dela, Udaletxean beharrezko den instalazio berria egin beharko delarik.

Ikusirik goian aipaturiko lan hoiek egiteko SERMICRO enpresak aurkezturiko aurrekontua.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: SERMICRO enpresak aurkezturiko KZ gunea Udaletxean jartzeko instalazio aurrekontua onestea, bere zenbatekoa 2.371,75 euro direlarik.

BIGARRENA: 2.371,75 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri SERMICRO enpresari ematea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira azaltzen.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

